

DataGrid, etorkizuneko Internet?

Eider Carton Virto
Elhuyar

Interneten dena dago. Edozein gairi buruzko nahi adina informazio eta beste hainbeste zabor. Internet bazter guztietara ari da hedatzen eta geroz eta erabiltzaile gehiago ditu, baina hedapenak sarearen mugak agerian utzi ditu. Motela da gauza askotarako eta dagoeneko informazio-kantitate oso handiak kudeatzeko ez du balio. Hautabideak, hortaz, ezinbestekoak dira.

EUROPA DATAGRID SISTEMA ANTOLATZEN ARI DA BURU-BELARRI. Europako Batzordeak joan den urteko martxoan Lisboan egin zuen bileran proposatu zen ideia: Europako ikerketa zientifikoentzat baliagarri izango zen sare propioa osatzea. Helburua European barrera informazioa abiada bizian zabalduko duen tresna informatikoa garatzea eta frogatzea zen.

Europako Batzordeak 2000ko maiatzean onartu zuen proiektua, eta hiru urterako 9,8 milioi eurotako diru-laguntza esleitu zitzaion. Abenduaz gero, CERN



ARTIBOKOA

Ikerketa Nuklearrerako Europar Erakundea dago proiektuaren buruan, Europako Espazio Agentziarekin eta Frantziako, Italiako, Britainia Handiko eta Herbeheretako ikerketa erakunde garrantzitsuekin batera lanean.

Middleware

Interneten nabigatzeko erabiltzen den World Wide Web sistema CERNen prestatu zen 90eko hamarkadan eta, hari esker, Internet mundu osoarentzat eskuragarri bilakatu zen. Haren ondorengoa ere CERNen egingo da, espiritua berarekin baina kontzeptu teknologiko berriez baliatuz.

Griden ez dira datuak bakarrik banatu, aplikazioak ere banatu dira. Batetik "kode irekian" oinarritzen diren teknologiak bultzatuko dira, hau da, beharren

arabera egokitu daitezkeenak. Bestetik, middleware deritzon sistemak erabiltzaileen eta aplikazioen arteko bitartekari lanak egingo ditu. Middlewarea aplikazioak eta sistema eragileak lotzeko gai izango da eta horrek emango dio azkartasuna DataGridi. Superkonputagailuak, datu bankuak, erreminta informatikoak eta milaka ordenagailu personal abiada handiko sistema horrek lotuko ditu. Ordenagailu batek lan bat egin ordez, ordenagailu askok lan zati txikiak egingo dituzte eta gero emaitzak komunean ipiniko dira.

Bitartekariaren kontzeptua da DataGriden egiten duen ekarpen nagusia, nahiz eta ez den proiektu honetan bakarrik garatzen ari. Estatu Batuetako Unibertsitateetan sortzen ari diren Internet2k antzeko oinarriak ditu, baita NASAren Power Grid programak ere.

Sare boteretsua

CERNen eraikitzen ari diren azeleragailu berriak sortuko duen informazioa aztertzea eta kudeatzea izango da DataGriden eginkizun nagusietako bat. LHC partikulen azeleragailua 2005. urtean hasiko da lanean eta DataGrid ere ordurako prest egongo da. Izan ere, azeleragailuko ikerketetan sortuko den informazio-bolumen erraldoiak ezinbestean eskatzen du sistema berri bat.

Azeleragailuan segundoko sortuko den informazioa sortzeko lurreko biztanle denak aldi berean 20 telefonotatik hizketan aritu beharko lirakekeela kalkulatu da; datuak prozesatzeko, berri, 10.000 ordenagailuren lana beharko litzateke. CERNeke fisikariek, beraz, nahitaezkoa dute DataGrid.

“Middlewarea aplikazioak eta sistema eragileak lotzeko gai izango da eta horrek emango dio azkartasuna DataGridi”

Dena dela, fisikariak ez diren beste askorentzat ere oso baliagarria izango da. Genomak ikertzen dituztenentzat, esaterako, edota eredu klimatikoak aztertzen dabiltzanentzat. Datu asko biltzeko, prozesatzeko eta banatzeko gai den potentzia handiko sistema lan-tresna baliotsua baita zientzia-esparru guztietan.

Erabiltzaile arruntek, ordea, urte batzuk itxaron beharko dituzte DataGrid bezalatu ahal izateko. Izan ere, “ikertzai-leak arriskuak euren gain hartzeko trebatuak daude eta beraiek izango dira DataGriden lehen erabiltzaileak” adierazi dio Elhuyarri proiektuaren ardura-dun Fabrizioo Gagliardi-k, “nahiz eta teknologiak espektatibei erantzun, erabiltzaile arruntengana ere iritsiko den bost bat urteren buruan”. □

Irratia.com

Auñamendi entziklopedia Internetetik kendu badute ere, badaude euskararen alde lan egiten duten beste hainbat proiektu on-line. Horien artean nabarmentzekoa Irratia.com izenekoa da. Ez da irrati arrunta,

irradi multimedia baizik. Internetetik bakarrik entzun daitekeen irrati honetan, entzuten ari zarenaren testua ere irakur dezakezu, baita, esaterako, argazkiak ikusi ere. Gainera, Euskal Herriko hainbat irrati libre ere entzun daitezke bertatik. Sei musika-kanal dituzte, eta grabatutako irratsaioak eta astean behin zuzeneko saioa egiten dute bertako arduradunek.



Xbox eta Whistler Microsoften berrikuntzak

Bill Gatesek aurkeztu berri du Xbox, Microsoften apustu berria jokoen merkaturako. Kontsola berri honek Nintendo, Sega eta Sonyri zuzeneko konkurrentzia egingo die, beste kontsolek eskaintzen ez dituzten berrikuntzak eskaintzen baititu Xboxak. Toy Story pelikularen parekoak diren grafikoak eskaintzeaz gain, Ethernet ataka ere badu Xboxak sarean jokatu ahal izateko, baita beste lau ataka ere jokalaria anitz onartzeko. Microsoften esanetan, aurkezpenean azken produktua izango denaren bosten bat besterik ez omen zuten aurkeztu, baina laster izango da merkatuan Xboxa oso-osorik. Aurkezpenean Whistler izeneko Microsoften sistema eragile berriaz hitz egin zuen Gatesek. Windows 2000 eta Windows MEren ordezkoa izango den sistema eragile honen Beta bertsioa Interneten jarri zuten behera kargatzeko moduan, baina berehala kendu zuten, bertsio hori ez baitzebil.



Apple-ek ere berrikuntzak

Microsoftek berrikuntzaren bat aurkeztean, Apple ere inguruan ibili ohi da. G4 berriak aurkeztu ditu Steve Jobs-ek eta hauek ere profesionalak txundituta utzi dituzte. 750 Mhz-eko abiadurako prozesadorea izango dute G4 berriek besteak beste. Baina berrikuntza nagusia ekipo guztiek izango duten SuperDrive unitatean dago. Unitate honekin CDak zein DVDak graba edo irakur daitezke.

